

DEKRETUA

Anoetan, sinaduraren datan.

Udal honetako 2025. urterako Aurrekontu Orokorretan (GAO, 102. zk., 2025/06/02) honako aurrekontu-partida hau dago:

- 1.0000.480.335.10.01: Dirulaguntza. Herritarren euskalduntze eta alfabetatzea.

Partida horrek 5.000 euroko kontsignazioa du.

Anoetako 2025-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak (GAO, 188. zk, 2025/10/02) honako dirulaguntza hau jasotzen du Euskara Sailaren baitan:

“...

Dirulaguntza lerroa: Euskalduntze eta alfabetatzea

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Euskara</i>
<i>Sektore hartzaileak</i>	<i>Euskaltegi edo barnetegietan euskara ikasten ari diren herritarrak</i>
<i>Helburuak</i>	<i>Anoetako herritarrei euskara ikasteko edo hobetzeko laguntza ematea.</i>
<i>Lortu nahi diren ondorioak</i>	<i>Anoetako herritarren artean euskararen ezagutza maila handitzea</i>
<i>Egikaritze epea</i>	<i>Zehaztu gabe.</i>
<i>Kostuak eta finantzaketa iturriak</i>	<i>Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin egiten da.</i>
<i>Ekintza Plana</i>	<i>Deialdia argitaratu ondoren, eskatzaileak eskaera egin behar du. Banan bana aztertzen dira eskaerak eta hartzen da dagokion erabakia, beti ere aurrekontuko partidaren zehaztutako kopuruaren menpe.</i>
<i>Jarraipena eta ebaluazioa</i>	<i>Ikasturte amaieran, justifikazio-dokumentuak aurkeztu beharko ditu onuradunak, emandako laguntzak bere helburua bete duela ziurtatzeko.</i>

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
<i>1 0000.480.335.10.01</i>	<i>Herritarrak</i>	<i>Euskalduntze eta alfabetatzea</i>	<i>5.000 €</i>	<i>Deialdia norgehiagoka</i>	<i>15.000 €</i>

...”.

2025eko urriaren 31n euskara teknikariak deialdi-proposamena aurkeztu du 2025. urtean euskara ikasten duten herritarrei dirulaguntzak emateko.

Dokumentazioa aztertu da eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 23. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) eta s) artikuluetan eta Anoetako Udalaren dirulaguntzak emateari buruzko araudiaren 7.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa. Onartzea 2025. urtean euskara ikasten aritu diren Anoetako herritarrei dirulaguntzak emateko deialdia, espedientean ageri den testuarekin.



Bigarrenena. Onartzea 5.000 euroko gastua:

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>
1 0000.480.335.10.01	Herritarak	Euskalduntze eta alfabetatzea	5.000 €	Deialdia norgehiagoka

Hirugarrena. Dirulaguntzen datu-base nazionalean sartu beharreko informazioa erregistratzea, deialdiaren testuarekin, laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, Dirulaguntzen datu-base nazionalak deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku jarriko du, argitara dadin. Laburpenaren argitalpenean, Dirulaguntzen datu-base nazionalak deialdiari esleitu dion identifikazio-kodea jaso beharko da.

Oinarriak eta deialdia Udaleko iragarki taulan eta web orrian ere argitaratu beharko dira.

Laugarrena. Euskara teknikaria izendatzea instrukzio-organo.

Bosgarrena. Euskara teknikaria, Amaia Urkola Arocena eta Mikel Olano Aburuza izendatzea kide anitzeko organoko kide.

Honela agindu eta sinatu du Egoitz Luisa Urkola alkateak eta neuk, idazkariak, fede eman.

Alkatea

Idazkaria